



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

**Resolución 9/2018 ebazpena**

Recurso 5/2018 errekurtsua

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) elkarteak Gaztegunea kudeatzeko zerbitzu kontratuaren baldintza agirien aurka aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtsu berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, ondorengo erabakia hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato de servicios de gestión del Gaztegunea, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**LEHENA.-** Auzitegi honetako erregistroan 2018ko abuztuaren 27an aurkeztu zen idatziaren bidez, AGISAS elkarteak kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztu zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako kontratuaren baldintza agirien aurka.

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 27 de agosto de 2018, AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos que rigen el contrato citado en el encabezamiento de esta resolución.

**BIGARRENA.-** Abuztuaren 28n, Auzitegiak errekurtsua bidali zion Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari, eta kontratazio espedientea zein bidezko txostena eskatu zizkion, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenerak (SPKL), 56.2. artikuluan xedatutakoaren arabera. Dokumentazio hori irailaren 12an jaso zen Auzitegian.

**SEGUNDO.-** En fecha 28 de agosto el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, los cuales tuvieron entrada en el Tribunal el día 12 de septiembre.

**HIRUGARRENA.-** Auzitegiak, irailaren 14an, proposamena aurkeztu zuten lizitatzailleen identitatea eskatu zion kontratazio organoari, errekurtsuaren berri emateko.

**TERCERO.-** En fecha 14 de septiembre el Tribunal solicitó del órgano de contratación la identidad de los licitadores que hubieran presentado proposición, a efectos de darles traslado del recurso.



**LAUGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 56.3 artikuluan xedatutakoa betez, irailaren 24an, errekurtsoaren berri eman zitzaion lizitatzailerak bakarri (HORBEL S Coop), bost laneguneko epean alegazioak egin zitzaizkion, baina ez du alegaziorik aurkeztu.

**CUARTO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, en fecha 24 de septiembre se dio traslado del recurso a la única licitadora (HORBEL S. Coop.) para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones, sin que haya presentado ninguna.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoaren onargarritasuna

**LEHENA.-** Errekurtso berezi hau aurkeztu da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 44.1.a) artikuluan aurreikusitako zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 1.839.908,37 euro da.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita SPKLren 44.2.a) artikuluan eta Auzitegi honi dagokio errekurtsoaren berri izateko eskumena, hain zuzen ere Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1 artikulua emandakoa.

**BIGARRENA.-** Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedarekin zerikusia duten interesak ordezkatzeko dituen elkarte delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defenditzen dituelako.

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsoa aurkeztu da SPKLak 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen epearen barruan, hau da, hamabost lanegun, kontratatzailearen profilean lizitazio iragarkia argitaratu zen egunaren biharamunetik aurrera.

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios de los contemplados en el artículo 44.1.a) LCSP, cuyo valor estimado asciende a 1.839.908,37 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo el artículo 44.2.a) LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

**TERCERO.-** El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, de quince días hábiles contados a partir del día siguiente a aquél en que se publicó el anuncio de licitación en el perfil de contratante.



### Auziaren mamia

**LAUGARRENA.-** AGISAS elkarteak errekurtoa jarri du Gaztegunea kudeatzeko zerbitzuaren kontratazio espedienteko baldintza administratibo berezien agiriaren eta ezaugarri teknikoen agiriaren aurka. Lizitazioa Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak egin zuen eta Diputatuen Kontseiluaren 2018ko uztailaren 24ko erabakiaren bidez onartu zen.

Aurkaratzen dituen atalak dira, batetik, baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 17. atala, bitartekoak nahitaez atxikitzeko konpromisoari buruzkoa, eta, bestetik, ezaugarri teknikoen agiriko 3. atala, ondorengo giza baliabideak izatea eskatzen duena:

- 2 pertsona, Giza Zientzietako lizentzia edo gradua dutenak.
- 5 pertsona, gizarte heziketako, animazio soziokulturaleko edo antzeko diploma edo gradua dutenak.
- 1 pertsona, administrazioko eta kudeaketako goi mailako teknikaria.

Errekurtsogileak uste du kontratuaren funtzioak betetzeko beharrezkoa den titulazioa eta kalifikazio legala duten langileak direla animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi mailako teknikari tituluak dutenak.

Horrenbestez, eskatzen du deuseztatzeko behar diren giza baliabideen inguruko atala, eta ezinbestekotzat jotzeko zerbitzuari atxikitako teknikarietako animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi mailako teknikariaren titulu ofiziala edukitzea.

**BOSGARRENA.-** Kontratazio organoak, irailaren 4ko txostenean, adierazten du ez dagoela

### Fondo del asunto

**CUARTO.-** AGISAS recurre el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el pliego de prescripciones técnicas (PPT) del expediente de contratación del servicio de gestión del Gaztegunea, licitado por el Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes y aprobado mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral adoptado en sesión celebrada el 24 de julio de 2018.

Impugna el apartado 17 del cuadro de características del PCAP, relativo al compromiso de adscripción obligatoria de medios, y el apartado 3 del PPT, que exigen la disposición de los siguientes medios personales:

- 2 personas con licenciatura o grado en el área de Humanidades.
- 5 personas con diplomatura o grado en educación social, animación sociocultural o similares.
- 1 Técnico/a superior en administración y gestión.

Entiende la recurrente que el único personal debidamente titulado y legalmente cualificado para desempeñar las funciones del contrato es aquél que ostente el título de técnico superior en animación sociocultural, y turística.

Por ello solicita que se anule el apartado relativo a los medios humanos necesarios y se considere imprescindible que el personal técnico adscrito al servicio esté en posesión del título oficial de técnico superior en animación sociocultural y turística.

**QUINTO.-** El órgano de contratación, en su informe de fecha 4 de septiembre, señala que no



jarduera erreserbarik elkarte errekurtsogileak ordezkatzeko duen kolektiboaren alde, eta horretarako gai horren inguruko jurisprudenzia aipatzen du.

Gaineratzen du, kontratuaren xede diren zerbitzuak betetzen ari den langile taldeak betetzen dituela baldintza agirietan eskatutako titulazio eta hizkuntza beharkizunak, eta ez dela beharrezkotzat jo aldaketarik egitea; alderantziz, erabaki da dauden kategoria profesionalei eustea, nahitaezkoak eta egokiak direlako kontratua behar bezala gauzatzeko. Kontratatzaile suertatzen den enpresak bere gain hartu beharko du lantalde hori, indarrean dagoen Gipuzkoako Gizarte Esku Hartzearen Lan Hitzarmenak xedatutakoa betez, hain zuzen ere enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen baitio adjudikaziodunari.

Bukatzeko, adierazten du baldintza agirietan arazorik gabe onartzen dela animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi mailako teknikariaren profila eta egokitzeak jotzen dela Gaztegunean ematen diren zerbitzuak betetzeko, baldintza agirietan zehazten diren titulazioen katalogoa hainbat profiletara irekia baitago, eta, gainera, “antzekoak” hitza eranstean da azpimarratzeko ez direla baztertzeko kontratuaren xedarekin lotuta dauden beste titulazio batzuk.

Azaldutako guztiagatik, uste du baldintzen agiriak zuzenbidearen arabera direla eta ez direla deusezak edo deuseztagarriak, eta, ondorioz, errekurtsua ezestea proposatzen du.

**SEIGARRENA.-** Ezaugarri teknikoen agiriko 1. atalaren arabera, kontratuaren xedea da laguntza teknikoa ematea ondorengo hiru zerbitzu alorretan:

“Haurrentzako eta gazteentzako informaziorako eta komunikaziorako zentroa

*Haurrekin, nerabeekin eta gazteekin lotutako*

existe reserva de actividad a favor del colectivo representado por la entidad recurrente, y trae a colación la doctrina jurisprudencial en esta materia.

Añade que el equipo de trabajadores que actualmente presta los servicios objeto del contrato cumple los requisitos de titulación e idiomas exigidos por los pliegos, y que no se ha estimado necesario introducir modificaciones; al contrario, se ha optado por mantener las categorías profesionales existentes por encontrarlas necesarias e idóneas para la correcta ejecución del contrato. Dicho equipo deberá ser asumido por quien sea el futuro contratista, en aplicación del vigente Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa, que impone al adjudicatario la obligación de subrogarse como empleador.

Termina señalando que los pliegos aceptan perfectamente el de técnico superior en animación sociocultural y turística como perfil idóneo para desarrollar los servicios que se prestan en el Gaztegune, desde el momento en que el catálogo de titulaciones definidas en los pliegos está abierto a varios perfiles, y, además, se añade el vocablo “similares” para remarcar que en ningún caso quedan relegadas titulaciones que tengan relación con el objeto del contrato.

Por lo expuesto, considera que los pliegos son conformes a derecho y no incurren en causa alguna de nulidad o anulabilidad, por lo que propone que se desestime el recurso.

**SEXTO.-** Conforme al apartado 1 del PPT el objeto del contrato consiste en la asistencia técnica en las siguientes tres áreas de servicios:

“Centro para la información y comunicación infantil y juvenil

*Búsqueda, obtención, clasificación y gestión de*



*informazioa eta dokumentazioa bilatzea, lortzea, sailkatzea eta kudeatzea, eta Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema osatzen duten eragilei transmititzea, baita bideak aplikatzea eta garatzea ere komunikazio hori irisgarria izan dadin Gipuzkoako haurrentzat, nerabeentzat eta gazteentzat.*

*información y documentación relacionada con la infancia, la adolescencia y la juventud y su transmisión a los agentes que integran el Sistema de Promoción de Infancia y Juventud de Gipuzkoa, así como la implantación y desarrollo de los cauces a través de los que hacer accesible dicha comunicación, a las niñas, niños, adolescentes y jóvenes de Gipuzkoa.*

Haurren ahalduntzea bultzatzeko zentroa

Centro para el impulso del empoderamiento juvenil

*Gipuzkoako gazteen ahalduntzea bultzatzea, prestakuntzako ekimenak garatuta, parte-hartzea jorratuta eta gazteen ekimenen garapenean lagunduta.*

*Impulso del empoderamiento de las personas jóvenes de Gipuzkoa desarrollando iniciativas formativas, trabajando la participación y acompañando el desarrollo de iniciativas juveniles.*

Aisia hezigarriko programak kudeatzeko bulegoa

Oficina para la gestión de programas de ocio educativo

*Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiaren aisia hezigarriko programak diseinatzea, garatzea, egikaritzen laguntzea eta ebaluatzea: Udalekuak eta Gazte Oporraldiak”.*

*Diseño, desarrollo, asistencia a la ejecución y evaluación de los programas de ocio educativo de la Dirección General de Juventud y Deportes: Udalekuak y Gazte Oporraldiak”.*

Ondoren, ezaugarri teknikoen agiriko 2. atalak kontratuaren xedea zehazten du zentro eta bulego bakoitzerako, baita jarduera lerroak eta funtzioak ere.

A continuación, el apartado 2 del PPT concreta el objeto del contrato respecto de cada uno de los centros y oficina, así como las líneas de actuación y funciones.

**ZAZPIGARRENA.-** Errekurtsogileak jaso ditu hezkuntza sistemako lanbide heziketaren ordenamendu orokorra ezartzen duen araudiaren zenbait agindu, baita animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi mailako teknikariaren titulu ofizialaren curriculumare ere, eta ondorioztatu du ezen titulu hori izan ezean, zerbitzu hori atxikitako langileak betetzen ariko liratekeela tituludun horientzat gordetako lanbide eskumenak, horretarako beharrezkoa den kalifikazio, trebakuntza eta legezko gaikuntza izan gabe.

**SÉPTIMO.-** La recurrente reproduce diversos preceptos de la normativa que establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo, así como el currículo correspondiente al título oficial de técnico superior en animación sociocultural y turística, y concluye que, de no disponer del mismo, el personal adscrito al servicio estaría desempeñando competencias profesionales reservadas a dichos titulados sin la debida cualificación, capacitación y habilitación legal para ello.



Alabaina, gauza bat da titulua egokia izatea kontratuaren xedeari dagozkion zereginak betetzeko, eta hori berariaz aitoritzen da baldintza agirietan eta ez da zalantzan jartzen, baina, beste gauza bat da eskumenen erreserba bat egotea horren alde.

Kontratazio organoak argudiatzen duenez, auzi hau ebazteko lanbide tituludunen eskumenei buruzko jurisprudenzia jo behar da, eta bertan behin eta berriz esaten da lehenasuna ematen zaiola askatasunaren printzipioari gaitasunarekin, eskusibotasunaren eta eskumen monopolioaren aldean.

Hala, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren 2015eko apirilaren 10eko 319/2015 ebazpenean, honako hau jasotzen da:

Sin embargo, una cosa es que el título pueda ser idóneo para la realización de las prestaciones objeto del contrato, lo que se reconoce expresamente en los pliegos y no se discute, y otra muy distinta que haya una reserva competencial a favor del mismo.

Como aduce el órgano de contratación, para resolver la cuestión planteada debe acudir a la doctrina jurisprudencial relativa a las competencias de las profesiones tituladas, que de forma reiterada señala la prevalencia del principio de libertad con idoneidad sobre el de exclusividad y monopolio competencial.

Así, en la Resolución del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales 319/2015, de 10 de abril de 2015, se recoge al respecto lo siguiente:

“En efecto, si acudimos a la doctrina jurisprudencial dictada en esta materia, de su examen cabe destacar una idea fundamental: frente al principio de exclusividad y monopolio competencial ha de prevalecer el principio de “libertad con idoneidad” (por todas, STS de 21 de octubre de 1987 (RJ 1987,8685), de 27 de mayo de 1998 (1998,4196), o de 20 de febrero de 2012 (JUR 2012,81268)), principio este último coherente con la jurisprudencia del TJUE sobre la libre concurrencia (SSTJUE de 20 de septiembre de 1988 y de 16 de septiembre de 1999), debiendo dejarse abierta la entrada para el desarrollo de determinada actividad, como regla general, a todo título facultativo oficial que ampare un nivel de conocimientos técnicos que se correspondan con la clase y categoría de las actividades a desarrollar (STS de 10 de julio de 2007 (RJ 2007,6693)). En este sentido, en la STS de 22 de abril de 2009 (RJ 2009,2982) se afirma lo siguiente:

“[...] Con carácter general la jurisprudencia de esta Sala viene manteniendo que no puede partirse del principio de una rigurosa exclusividad a propósito de la competencia de los profesionales técnicos, ni se pueden reservar por principio ámbitos excluyentes a una profesión, y aun cuando cabe la posibilidad de que una actividad concreta pueda atribuirse, por su especificidad, a los profesionales directamente concernidos, esta posibilidad debe ser valorada restrictivamente, toda vez que la regla general sigue siendo la de rechazo de esa exclusividad, pues [...] la jurisprudencia ha declarado con reiteración que frente al principio de exclusividad debe prevalecer el de libertad con idoneidad, ya que, al existir una base de enseñanzas comunes entre algunas ramas de enseñanzas técnicas, éstas dotan a sus titulados superiores de un fondo igual de conocimientos técnicos que, con independencia de las distintas especialidades, permiten el desempeño de puestos de trabajo en los que no sean necesarios unos determinados conocimientos sino una capacidad técnica común y genérica que no resulta de la titulación específica obtenida sino del conjunto de los estudios que se hubieran seguido”.



Es importante destacar que no se trata del reconocimiento de un derecho a la igualdad de todos los profesionales, sino de aquéllos que tienen la “capacidad técnica real para el desempeño de las respectivas funciones”, elemento éste que, a falta de previsión normativa, debe ser objeto de un análisis casuístico. En definitiva, la jurisprudencia rechaza el monopolio de competencias a favor de una profesión técnica determinada al mantener la necesidad de dejar abierta la entrada a todo título facultativo oficial que ampare un determinado nivel de conocimientos técnicos”.

Kontratuaren xedea da Gazteguna kudeatzea zehaztutako baldintzetan, eta inongo arauditan ez da eskatzen zerbitzu horiek betetzeko titulazio jakin bat izan behar dutenik lantaldea osatzen duten langileek; beraz, legezko erreferentziarik ez dagoenez, kontratazio organoari dagokio beharrezkoa den kualifikazio profesionala balioestea, SPKLak xedatutakoaren arabera.

**ZORTZIGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 76.2 artikuluan esaten da kontratazio organoek eskatu ahal izango dietela izangaiei edo lizitatzailerei, baldintza agirietan behar bezala jasota, kaudimena edo, hala balegokio, sailkapena egiaztatzeaz gain, konpromisoa hartzeko kontratuaren exekuziora atxikitzeko behar beste giza baliabide edo bitarteko material. Konpromiso horiek kontratuan sartuko dira, eta baldintzen agiriek eta kontratuaren dokumentuek oinarritzeko obligaziozkat jo behar dituzte 221. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; eta esleipendunak obligazio horiek bete ezean, zigorrak ezarri behar dituzte, 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 76.3 artikuluan xedatzen du giza baliabideen edo bitarteko materialen atxikipena egitea kaudimenaren baldintza gehigarri gisa arrazoizkoa eta justifikatua izan behar duela, eta proportzioskoa kontratuaren garrantzia eta ezaugarriak kontuan hartuta, horrek mugatu ez dezan enpresen parte hartzea lizitazioan.

El objeto del contrato es la gestión del Gazteguna en los términos expuestos, sin que exista normativa alguna que exija que las personas que compongan el equipo de trabajo deban estar en posesión de un título determinado para llevar a cabo la ejecución de los servicios de que se trata, por lo que, en ausencia de referencias legales, la cualificación profesional necesaria debe ser apreciada por el órgano de contratación de conformidad con la LCSP.

**OCTAVO.-** Establece el artículo 76.2 LCSP que los órganos de contratación podrán exigir a los candidatos o licitadores, haciéndolo constar en los pliegos, que además de acreditar su solvencia o, en su caso, clasificación, se comprometan a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato los medios personales o materiales suficientes para ello. Estos compromisos se integrarán en el contrato, debiendo los pliegos o el documento contractual atribuirles el carácter de obligaciones esenciales a los efectos previstos en el artículo 221, o establecer penalidades, conforme a lo señalado en el artículo 192.2, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.

Y el artículo 76.3 LCSP dispone que la adscripción de los medios personales o materiales como requisitos de solvencia adicionales debe ser razonable, justificada y proporcional a la entidad y características del contrato, de forma que no limite la participación de las empresas en la licitación.



Kasu honetan, giza baliabideen eta horien titulazioen exigentzia kontratua gauzatzeko funtsezko betebeharrak gisa ezartzen da, kontratazio organoak beharrezkotzat jotzen baitu zerbitzua eman ahal izateko, eta horrela jasota dago berariaz baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 22. atalean.

Hala, kontratazio organoak, kontuan hartuta dagoeneko funtzionamenduan dagoen zerbitzu baten izaera, zerbitzu horren hartzaileak eta metatutako esperientzia, erabaki du Gaztegunearen hiru zerbitzu arloetan laguntza teknikoa emateko bere horretan eutsi behar zaiela lehenik dauden kategoría profesionalei, beharrezkotzat eta egokitutak jotzen baititu kontratua zuzen betetzeko.

Horiek horrela, kontuan hartuta lege mailan zerbitzu horien prestazioa ez dagoela eskusibotasunez gordeta elkarte errekurtsogileak ordezkatzeko duen kolektiboarentzat, eta kontratazio organoaren eskumena dela zehaztea zer ezagutza maila behar den kontratuaren bidez bete nahi diren premiak asetzeko, Auzitegi honek uste du baldintza administratibo berezien agirian aurreikusitako titulazioak eskatzeko erabakia arrazoizkoa dela eta justifikatuta dagoela, eta ez dela diskriminatzailea animazio soziokulturaleko eta turistikoko titulua duten pertsonetarako, titulu hori baldintza berezien agirian ere jasota baitago kontratuaren xede diren prestazioak betetzeko titulu egoki gisa.

**BEDERATZIGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa

En el presente caso, la exigencia de los medios humanos y sus titulaciones se configura como una obligación esencial de ejecución del contrato que el órgano de contratación estima necesaria para la prestación del servicio, y así se recoge expresamente en el apartado 22 del cuadro de características del PCAP.

El órgano de contratación ha considerado, en atención a la naturaleza de un servicio que ya está en funcionamiento, al público al que va dirigido y a la experiencia acumulada, que para la asistencia técnica en las tres áreas de servicios del Gaztegunea deben mantenerse las categorías profesionales existentes, por considerarlas necesarias e idóneas para la correcta ejecución del contrato.

Por lo expuesto, teniendo en cuenta que a nivel legal la prestación de estos servicios no está reservada con exclusividad al colectivo cuyos intereses defiende la asociación recurrente, y que el órgano de contratación es el competente para determinar el nivel de conocimientos técnicos necesario para satisfacer las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, este Tribunal considera que la decisión de exigir las titulaciones previstas en el PCAP es razonable y está justificada, y además no es discriminatoria respecto de las personas tituladas en animación sociocultural y turística, puesto que dicha titulación es una de las previstas en el PCAP como adecuada para el desarrollo de las prestaciones que constituyen el objeto del contrato.

**NOVENO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales





## ERABAKITZEN DU

Ezatea ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES elkarteak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

## ACUERDA

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2018ko abenduaren 11 / San Sebastián, 11 de diciembre de 2018.**